

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

98/2019 Foru Agindua, apirilaren 17koa, zeinak Zigoitiko udalerriko Murua herrian, lurzoru urbanizaezinean, telefonia mugikorreko deien banagune bat eraikitzeke proiektuaren interes publikoa adierazten baitu

Telefónica Móviles España SAK Zigoitiko Udalari aurkeztu dio telefonia mugikorreko deien banagune bat ezartzeko obra eta jarduera proiektua. Instalazioa, 34 metroko garaiera duen metalezko dorre bakartu batek osatua, hari itsatsitako armairuarekin, eta itxitura perimetralaz inguratua, Murua herriko 3 poligonoan, 499 lurzatian, kokatuko da. Erabilera berrirako 20 m²-ko azalera egokitu beharko da, eta proiektuan jaso da, halaber, hiri lurzorutik lurpean linea bat instalatzea hartune elektrikorako.

Espedientean dago aurkezturiko proiektu teknikoa, telefonia mugikorreko estaziogune bat jartzeari buruzkoa (0100510 Murua COC: 201806002059), baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinean adierazten baita lurzattia lurzoru urbanizaezinean dagoela, Z5 zonan (nekazaritza babeseko zona), udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera.

Zigoitiko Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

ONARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluko otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Otsailaren 11ko 34/2019 Foru Aginduaren bidez, hasierako onespina eman zitzaion espedienteari eta onetsi zen jendaurrean ipintzeko 20 eguneko epe bat hastea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Argitalpena 2019ko 23. zenbakian egin zen, otsailaren 22an.

Alegazioak aurkezteko emandako epean hamahiru alegazio agiri aurkeztu dituzte beren izenean eta beren eskubideak baliatuz honako pertsona hauek: Fernando Landa Iturrospe, Arantzazu Sáenz Ozaeta, María Inés Ortiz de Zárate Bellido, Javier Ramirez Gabiña, Ibai Castillo Lacalle, Beatriz Lacalle Agorreta, Antonio Castillo Gómez de Segura, Juan Manuel Ruiz Salas, Nahia Izaga Moreno, Joana Pavon Velasco, María Teresa Moreno Benitez, José Ignacio Izaga San Pedro eta Javier Ramirez Gabiña.

Alegazio idatzi guztien edukia berbera da: alegaziotuak adierazten dute aurkeztutako proiektuaren aurka daudela, baina ez dute oinarri juridikorik formulatzen telefonia mugikorreko deien banagune bat eraikitzeke proiektuaren interes publikoaren aurka edo horrelako interesik ez dagoela arrazoitzeko.

Aurkeztutako alegazioetan zalantzan jartzen da deien banagunearen kokapena; horri dago-kionez, esan beharra dago, espedientean dauden agiri guztien arabera, kokalekua Muruako 3 poligonoko 499 lurzatia dela, eta lurzati hori Natura 2000 Sarearen babes bereziko zonen eremutik kanpo dagoela eta, zehazki, Gorbeia natura parketik kanpo (Batasuneko garrantzizko lekua).

Espediente honen helburua da proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren inguruan erabakitzea. Proiektua lurzoru urbanizaezinean egitea dago aurreikusita, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta Zigoitiko Udalari dagokio proiektua gauzatu behar den ala ez erabakitzea, indarrean dagoen legediaren arabera.

Maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorrak, telekomunikazioenak, 2. artikuluan ezarritakoaren ondorioz datorkio interes publikoa aztertutako kasuari. Artikulu horretan ezartzen denez, "Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira". Bestalde, 34.2 artikuluan hau xedatzen da: "komunikazio elektronikorako sare publikoak oinarri-zko ekipamenduak dira (...). Haiek ezartzeko eta hedatzeko lanak interes orokorreko obrak dira".

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lenenengoa. Telefónica Móviles España SAK sustatutako eta Zigoitiko Udalak izapidetutako proiektuaren interes publikoa adieraztea. Proiektua honetan datza: telefonia mugikorrek deien banagune bat ezartzea Murua herriko 3 poligonoko 499 lurzatian, lurzoru urbanizaezinean, Z5 nekazaritza babeseko zonan, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatzeko udalaren baimen egokia lortzeko beteharra, eta ez du aurrez juzgurik ematen udalak eman behar duen ebazpenaren edukiaz.

Hirugarrena. Interes publikoa adierazteak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsoa.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 17a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO